

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZIKUÑAGA

Zikuñagako jaiak, bigarren eguna

Dagoeneko hasi dira Zikuñagako jaiak, eta gaur izango dute bigarren eguna. Gaur 18:00etan jarraituko du festak, buru-haundiekin, *Puñtillo* taldeak musika jartzen duen bitartean. Ondoren, etxeko txikientzat moto lasterketa izango da. Jarraian, Apaxi ipuin kontaria izango da, eta gauean, playback lehiaketan ahotsa utzi ostean, Züttik Elektrotarangak, auzoa girotuko du. ■

■ HERNANI MUSIKA

Eszenatoki ezagunera buelta gaur, Lertxundi

Gaur eskainiko du kontzertua abeslari oriotarrak, gaueko 22:00etan hasita, Kiroldegian.

SARRERAK agortuta, aski ezaguna zaion oholtza gainera igoko da gaur Benito Lertxundi abeslari oriotarra: Hernaniko kiroldegiko eszenatokia, hain zuzen. Gaueko 22:00etan izango da hori.

Gaurko eta atzoko kantak

2018an argitaratu zuen *Ospakizun Gauean* diskoaren bueltako birak ekarri du Lertxundi Hernanira. Dena den, diska horretako abestiez gain, Lertxundiren ezagunak ere entzun ahal izango dira kiroldegian. «Espero dut jendea joatea, eta gustora geratzea», adierazi zion Kronikari kontzertuaz aurreko larunbateko aleko elkarrizketan (www.kronika.eus). ■



Benito Lertxundi kiroldegiko oholtza gainera igoko da berriro ere, gaur gauean.

■ HERNANI 11/13 SUMARIOA

Esna eta Larrartek hitzaldia, Biterin

Gaur hitzaldia eskainiko dute Amaia Esnaiek eta Aiert Larrartek 11/13 sumarioaz, 19:00etan Biterin. Gero, 20:00etan, Plazan elkartu eta manifestaziorako deia egin dute; preso eta iheslarien senide eta lagunek ere, bat egin dute. ■

■ HERNANI LAB

Zinkoenean elkartzeko, deia

Hilabeteko aurreko ostiralarekin, preso eta iheslarien eskubideen alde kontzentrazioa egiteko dei egin du LABek, 12:00etan Zinkoenean. ■

■ HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

Emakumeen euskal literaturaz, Minerrekin

'Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik' tailerra eskainiko du Kattalin Miner hernaniarrak hilaren 17tik aurrera. Dagoeneko izena eman daiteke Udal Liburutegian.

IKASTURTEA hasteko, mintegi berezi bat antolatuko du Udal liburutegiak: *Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik*. Kattalin Miner hernaniarrak gidatuko du, eta lau saio egingo dituzte, hilaren 17an hasi eta abenduaren 17ra bitarte.

Ikuspegi feministatik irakurtzeko tailerra

Lau saio izango dituen mintegia izango da. Aurreneko saioa hilaren 17an izango da, eta hilabetean behin egingo dira gainontzeko saioak, abendura

Lau saiotan egingo da mintegia, eta saio bakoitzean liburu bat landuko dute partehartzaileek.

arte: urriaren 15ean, azaroaren 12an eta abenduaren 17an, hain zuzen. Saio guztiak arratsaldeko 19:00etan hasita izango dira, liburutegian bertan.

Kattalin Minerrek berak azaldu duenez, «euskal, eta zehazki, euskerazko emaku-

me idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urtean argitaratu diren lanak irakurriko ditugu, egungo testuinguru eta bizipenetatik. Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen diren kezka, diskurtso eta proposamenak denon artean hausnartzea eta horiek, genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea».

Horretarako, saio bakoitzean, liburu bat landuko da:

hilaren 17an, Eider Rodriguez-en *Bihotz Handiegia*; urriaren 15ean, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*; azaroaren 12an, Katixa Agirreren *Amek ez dute*; eta abenduaren 17an, Alaine Agirreren *Odol Mamituak*.

Izenematea aurrez, liburutegian

Mintegian parte hartu nahi duten 16 urtetik gorakoek, aurretik eman dezakete izena, liburutegian bertan.

Horrez gain, landuko diren liburuak behar dituenak ere, bertan eskatu ditzake. ■

■ HERNANI STOCK AZOKA

Stock Azoka, gaurkoan ere

Gaur goizean ere, Stock Azoka egongo da. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00ak arte, Plaza Berrin. Azken eguna izango da gaurkoa, dende kalera ateratu dutena erosteko. ■

■ HERNANI IKASTAROKAK

Sormen tailerren izena, gaur arte

Gaur izango da gazteen sormen tailerren izena emateko azken eguna, Biterin. Bost egunetan emango du Arramazka artistak, 12-15 urte artekoek zuzenduta; hilaren 10, 12, 17, 19 eta 24an. Hernani Erabaki parte-hartze prozesuan egindako proposamenetik sortu da tailerra egiteko aukera. ■

Amaia
arrandegia
Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta
izoztuak
943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL, ALUZZO, 4 - beheko ezkerria
MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte
KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA
Ozenki abesbatzaren ensaloak
astearte-osteguna 20:00etan
IMANOL KAMU
musika eskola
943 33 12 33 - 637 85 79 62

JOXE MARI
EDARITEGIA
FIDELTASUN TXARTELA
Asteleheneetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzeko, zozketan parte hartuko duzu:
ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN
Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

Samitek
Belego makinaren salmenta eta mantenimendua
samitek@samitek.es
www.samitek.es
TOSHIBA
INFORMATIKA SAIL BERRIA
943 11 77 44
Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

Tripontzi
jatetxea
PINTXOK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

GAUR Gaur arratsaldean, hobera egingo du, hala ere, tenperaturak fresko jarraituko du, 20°ko maximoarekin. Egun haisieran, hodeiak egongo dira, baina eguerdian, zerua garbitzen joango da, eta kolore urdina nagusituko da. **Min.15° / Max.20°**

BIHAR Bihar, hodeiak eta osterteak izango dira nagusi. Goizean hodeiak egongo dira, baina eguerdian, garbitzera egingo du eta zerua urdin geldituko da. Ipar haizearekin jarraituko dugu, hala ere, atzo baino tenperatura epelagoa egingo du. **Min.15° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



ASTIGARRAGA AIZTONDO ABESBATZA

Entsaio irekia gaur, Aiztondok

Arratsaldeko 20:00etan hasita izango da entsaioa, kultur etxean. Aiztondoko kide izateko aukera irekita dagoela jakinarazi du koruak.

IKASTURTEA hasiko du aste honetan Astigarragako Aiztondo abesbatzak, eta urtero bezala, modu berezi batean egingo du. Astigarratar guztiei ateari ireki nahi dizkiote, korua ezagutu dezaten, eta horretarako, entsaio irekiarekin hasiko dute ikasturtea gaur.

Arratsaldeko 20:00etan hasita izango da entsaioa, kultur etxean.

Azaldutenez, Aiztondo abesbatzako kide izateko aukera ireki dute orain, eta entsaiora joan ezin duena, emalez edo telefonoz ere jarri daiteke harremanetan haiekin: aiztondoabesbatza@gmail.com edo 943 335 064. ||



Urtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen ditu Aiztondok.

HERNANI KZ GUNEA

KZgunearen ikasturtea, martxan

Irailean eta urrian, KZgunean teknologiar buruzko ikastaroak eskainiko dira. Aurrez aurreko ikastaroak eta urrunekoak daude aukeran, orain ere.

ESKOLEKIN batera, ikasturtea hasiko du, baita ere, Hernaniko KZguneak. Hain zuzen, ostegunean hasiko dira ikastaroak, eta jada urriaren 31ra artekoak aurkeztu dituzte.

Hamaika gai ikasteko aukera dago KZguneak eskaintzen dituen ikastaroetan, baita aurreneko hilabeta hauetan ere. Besteak beste, komunikazioa, irudia eta bideoa, ofimatika... ikasi daitezke aurrez aurreko ikastaroetan nahiz urruneko formazioaren bidez.

Ikastaro guztiak doakoak dira, baina aurretik izena ematea ezinbestekoa da. Hori, KZ Gunea bertan egin daiteke, Biterin, edo bestela, internet bidez: www.kzgunea.eus.

Bertan, gune pertsonala izan dezake edonork, eta arduradunek adierazi dutenez, hain kontu egin daitezke bertatik. Tartean, dautak eguneratu eta itxaron zerrendan apuntatzeko aukera ere ematen du gune pertsonal horrek.

Dena den, edozein arazoren aurrean, bulegora gerturatu daiteke edo 943 02 36 50 telefonora deitu. ||

HERNANIKO KZ GUNEA IRAILA ETA URRIA

AURREZ AURREKOAK

Irailaren 12-24, Google Aplikazioak zure Smartphonean. 16:00-18:00, gaztelaraz.

Irailaren 16-25, Kudeatu zaitez Google aplikazioekin. 11:00-13:00, gaztelaraz.

Irailaren 23, Egon zaitez aktibo Google Fit eta Wikiloc-ekin. 18:00-20:00, gaztelaraz.

Irailaren 24-25, Eusko Jaurkitza zure Smartphonean. 18:00-20:00, gaztelaraz.

Irailaren 25-26, WhatsApp. Bat- bateko mezularitza zure Smartphonean. 16:00-18:00, euskeraz.

Irailaren 26-27, Erosketa eta ordainketa segurua Interneten. 09:00-11:00, gaztelaraz.

Irailaren 26-27, YouTube. Bideoak ikustea baino gehiago. 11:00-13:00, euskeraz.

Irailaren 27-30, Canvas. Ikasi diseinatzen. 16:00-18:00, gaztelaraz.

Irailaren 30, Google Traductor. Testuak eta web orriak itzuli. 11:00-13:00, gaztelaraz.

Urriaren 1-14, Oinarriko internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa

bidaltzen ikasi. 16:00-18:00, euskeraz.

Urriaren 10-18, Smartphoneak eta tableta. Zure Android gailua erabiltzen ikasi. 09:00-11:00 euskeraz.

Urriaren 14-25 Ofimatika tresnak. LibreOffice. 11:00-13:00, euskeraz.

Urriaren 21-31, Google Aplikazioak zure Smartphonean. 9:00-11:00 euskeraz.

Urriaren 28-31, Facebook. Konektatu lagun eta senideekin. 16:00-18:00, euskeraz.

URRUNEKOAK

Irailaren 16tik urriaren 2ra, Zibersegurtasuna. Arriskuak, zaurgarritasunak eta mehatuak 20 ordu. Gaztelaraz.

Urriaren 7tik azaroaren 6ra, Ofimatika aurreratua. LibreOffice. 40 ordu. Gaztelaraz.

Urriaren 7tik azaroaren 6ra, Erabili profesionalki Google aplikazioak. 40 ordu. Gaztelaraz.

Urriaren 7tik azaroaren 6ra, APP Inventor.Sortu zure APPa. 40 ordu. Euskeraz.

Urriaren 7-23, WordPress. Zure webgunea. 20 ordu. Gaztelaraz.

KZ GUNEA

tutor.hernani@kzgunea.net/www.kzgunea.eus

ASTIGARRAGA IKASTAROA

Konfiantza indartzeko tailerra, kultur etxean

Gaur hasi eta urriaren 5era bitarte izango da.

ASTIGARRAGAKO emakume feministen taldeak antolatuta, *Konfiantza indartzeko pres-takuntza* eskainiko dute gaur hasi eta urriaren 5era bitarte.

Aurreneko lau saioak, gaurkoa barne, ostiraletan izango dira saioak, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitarte, kultur etxean. Urriaren 5ean, aldiz, ikastolan izango da.

Tresnak, eskuragai

Antolatzaileak azaldu duenez, norbere ezagutza eta onarpenarako kontzientzia eta barne konfiantza indartzeko tresnak landuko dira, alde emozionalekoak, gorputzekoak eta hizkuntza mailakoak.

Informaziorako edo izena emateko: kultur etxean edo aztifemiak@gmail.com. ||

GOIZUETA UDALA

Ikasturte honetan ikastarorik eskaini nahi?

Gaur arte izanen da aukera proposamenetarako.

URTERO bezala, Goizuetako Udalak deia egin die 2019-2020 ikasturtean zehar ikastaroren bat eskaini nahi dutenei. Gaur arte aurkeztu dezakete euren proposamena.

Eskaintzarekin batera, proposamena aurkeztu behar

izanen da, hau da, ikastaroren deskribapen zehatz bat: zer den, ordutegia, prezioa, nori zuzendua, iraupena...

Bestalde, baldintza bat ere jarri dute: ikastaroa eskaintzen duenak autonomia izan behar du. ||

HERNANI BARATZETIK PLATERERA

Produktu ekologikoez bihar, Orona-Ideon

Bihar, goizeko 11:00etan, Oronan hainbat hitzaldi eskainiko dira. Honakoak izango dira parte hartuko duten hizlariak: Iñigo Seguro, Jakoba Errekondo, Oier Lurrarandi, Iñigo Marquet eta Fede Pacha. Bertako eta garaiako produktu ekologikoein osatutako mokaduak dastatzeko aukera ere egongo dela aipatu dute. ||

HERNANI KONTRAKANTXA

Jardunaldia bihar, Gaztetxean

Bihar arratsaldeko 18:30etan, *Errepresioa eta amnistia: iragana ardatz, oraina borrokatu* mahaingurua, eta gaueko 22:30etan, kontzertuak egongo dira. ||

HERNANI ASFALTATZE-LANAK

Errotaran bidearen konponketa, ere bai

Gaur edo astelehenean Errotaran bidearen konponketa ere egingo dute Osiñagako asfaltatze-lanen barruan. Orduan, errepidea guztiz itxiko da, eta bide alternatiboak hartu beharko dira. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**